

Historia apur bat

Wikitokin, funtzionamendu kaordikorako joera daukagu (kaosaren eta ordenaren artean ibiltzen gara etengabe), gutxiengo protokolo bideragarriaren eta desiratzen dugun moldagarritasun handienaren arteko oreka lortu nahian.

SOZIOKRAZIA: EREDUA ETA BERE PRINTZPIOAK

Erabakiak hartzeko eta gobernatzeko metodo honek:

Partaidetza eta erantzukidetasuna garatzen ditu. Adimen kolektiboari boterea ematen dio, eta antolakundearen arrakastarako zerbitzura jartzen du. Edozein neurritako kolektiboetan aplika daiteke.

Hiru printzipio: gardentasuna, efizientzia eta ekitatea. Eta **lau arau ez osatzen da:**

- * Zirkulu erdi-autonomoetan oinarritutako antolaketa.
 - * Onespenezko erabaki-hartzea.
 - * Hautagaitzarik gabeko hautaketa irekia.
 - * Lotura bikoitza.
- Soziokraziak erakundeak sistema bizitzat jotzea proposatzen du: ingurunera egokitu behar dute, beren burua erregulatuz, eta **hiru baldintza hauek betez:**
- * Elementu batek ere ezin die bere borondatea besteei ezarri aldebakartasunez.
 - * Sistemak kanpoko energia-iturri bat dauka, eta iturri horrexek mugiarazten du.
 - * *Feedback*-sistema bat dauka.

5 URTEZ ASANBLADA 2014 - 2018

Gure lehen gobernantza ereduak horizontala, gardena, banatua eta erantzukidea izatea bilatzen zuen. Honako bidez antolatzen zen: asanblada, lantaldeak, auzolanak (komunitate osoaren topagune estrategikoak) eta denbora-bankua. Guzti hau barne-araudiaren barruan txertatuta zegoen, eta protokolo eta funtzionamendu-jarraitzaile adostuak zituen. Pilatutako eskarmentua *"Qué es y cómo funciona Wikitoki"* materialean islatuta dago. Soziokraziaren berri izan genuenean, eredu aldatzeko bitartekoak jartzea erabaki genuen.

EREDU- TRANSIZIOA 2018 - 2019

Gure arrazoiak:

- * **Bizitzak erdigunean jartzen jarraitzea.** Komunean dugunari eta zaintzei eskaini behar zaizkien denborak doitzea.
- * **Boterearen banaketa hobetzeko sistema bilatzea.** Ahotsak eta zilegitasunak areagotzea, rolak txandakatzea, jatorrizko metaketan edo meritokrazia ezkutuan oinarritutako logikak haustea, kidego-sentimendua garatzea, sormena areagotzea eta askotariko iritziak ugaritzea.
- * **Eraginkortasuna handitzea** Kolektiboarekiko konfiantza lantzea eta erabakiak hartzean arreta, eraginkortasuna eta bizkortasuna areagotzea.

Prozesuaren oinarriak:

- * Gobernantza soziokratikoaren eredu eta printzipioak ezagutzea.
- * Erakundearen beraren egoera aztertu eta aldaketari ekiteko dauzkagun balaztak eta motorrak ikustea.
- * Soziokrazia Wikitokira egokitzeko oinarriak planteatzea, gure egitura eta antolaketa-kultura aintzat hartuta.
- * Soziokraziaren prozedurak eta erreminta zehatzak praktikan esperimintatzea, maila pertsonal eta kolektiboan barneratzeko.
- * Wikikraziaranzko trantsizio-plan bat ezartzea, hura ebaluatzen joatea, eta taldeko ikaskuntza-prozesu moldagarri eta jarraitutzat hartzea.

Trantsiziorako urratsak eta ekintzak:

1. Asanblada oinarri, taldean adostuta erabakitzea **zenbat denbora eta diru eskaini** behar zaion gobernantza-eredua aldatzeari eta trantsizioa bizitzeari.
2. Wikitokiko lau kidek eraturako **talde eragilea sortzea**, trantsizio-prozesua gidatu, planifikatu eta kontrastatzeko eta Wikitokirentzako material nahiz metodologia espezifikoa sortzeko.
3. Talde eragileak Arterra ekimenaren **bidelaguntza aditua** jasotzea eta soziokraziari buruzko bi tailer egitea, komunitate osoarentzat, Wikitoki berrikusteko xedez.
4. Denon artean Wikitokirentzako **gobernantza-eredu berria sortzea.**

Prozesu guztian, **eredu berria hariz hari elkarrekin ehuntzeko, fasilazio-lana, praktika artistikoak, esperimintazioa eta Wikitokiren DNA** erabili genituen. Komunitate osoaren inplikazioarekin zehaztu genituen zirkulu, rol eta metodologia bakoitza, aurretik ondo funtzionatzen zuten eta, beraz, mantendu nahi genituen rolak eta dinamikak txertatuta.

WIKIKRAZIA 2020tik aurrera



WIKIKRAZIA...
¿POR QUÉ NO?

